



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Osteguna
2010-05-06**

VIII. URTEA 1993. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Zahartzaro duinaren plataforma ez da berriz ere Udalarekin bilduko

TOLOSA Erresidentzia berria hobetzeko ekarpenak egin dituzten arren, ez dietela jaramonik egin salatu dute

ASANBLADA Etzi, 12:00etan, Harizpe elkartearen lokaletan azpiegitura berriaren inguruan hitz egingo dute z



Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak 'Maiatza Borrokan' jardunaldiak aurkezten. I. TERRADILLOS

GIZA ESKUBIDEEN ALDARRIKAPENA

TOLOSA Tolosaldea Sahararekin elkarteak 'Maiatza Borrokan' antolatu du; ekitaldi ugari izango dira astelehenetik aurrera 3

Auzi ekonomikoa Donostiara ekarri dute

'EGUNKARIA AUZIA' Apirilaren 12ko absoluzio epaiaren ondotik ezin diete 'delitu terrorista' egotzi auzipetuei, ustezko iruzur fiskala baizik 4

235 pertsonak eman dute izena jada Erniopekoan

MENDIA Igandean izango da bi urtez behin egiten den ibilaldia; Bidegoianen hasi eta bukatuko da 5



SARIDUNAK

Maiatzaren 6, 7, 8 eta 9an Ibarra ospatuko den VII. Garagardo Festaren baitan, gau bakoitzerako bi pertsonentzako **afaria** zozketatu dugu

Gaurko afariaren sariduna
Karmen Iraeta Arsuaga (Tolosa)



hitza
TXOKOA hitza

Landa auzoetara gizarte zerbitzuak zabalduz

Tolosa » Hainbat landa auzotan herritarrei dagozkien zerbitzuak zeintzuk diren azaltzen ibili da Kristina Traperero.

A. IMAZ

Tolosako landa auzoetan gizarte zerbitzuen inguruko lan «garrantzitsu» bat egin dute eta atzo aurkeztu zuten. Agerraldian Olatz Peon udal zinegotzia, Arrate Iturbe Berpiztu programako kidea eta Kristina Traperero, lan hori burutu duena, izan ziren.

Olatz Peonek azaldu zuenez, «guzti honen hasiera landa auzo-



Arrate Iturbe, Kristina Traperero eta Olatz Peon. A. IMAZ

tan egin zen diagnostiko bat izan zen. Bertan azaltzen zenez, gizarte zerbitzuetan hutsune bat zegoen: informazioa ez zen behar bezain azkar eta ondo iristen landa auzoetara». Hori konpontzeko, ekintza plan bat jarri zuten abian. Hor kartzatzen da Kristina Traperoren lana. Urkizun, Bedaion, Aldaban eta Aldaba Txikin etxex-etxe eta baseriz-baserri ibili zen Traperero. Lana elkarriketa bidez egin du eta helburua gizarte zerbitzuak landa auzoetara gerturatzea izan da. Etxex-etxeko laguntza, Bonotaxia eta dirulaguntzen inguruko informazioa zabaldu du aipatu auzoetan Kristina Traperok, beste hainbat gauzen artean. «6 hilabete egin

naiz lanean eta harrera oso ona izan da». 60 urte baino gehiago dituzten auzotarrekin elkartu da Traperero, baita dependentsia egoerari bizi direnekin ere. Udalak eskaintzen dituen gizarte zerbitzuak azaltzeaz gain, «bizi kalitatea hobetzeko helburuarekin», ezinduen kasuan azterketa berri bat burutu du, euren egoeraren inguruko informazio zehatzagoa edukitzeko asmoz. Horrela, euren beharretara egokitzen diren zerbitzuen inguruko informazioa eman zaie.

Azkenik, «lan borobilagoa» egiteko asmoz, Tolosako beste auzoetan ekimenarekin aurrera jarraitzeko asmoa azaldu zuten.



Tolosa eta Irurako ikasleen txanda

ESKOLAKO AGENDA 21 » Atzokoan Irurako eta Tolosako ikasleen txanda izan zen. Bi herrietako udal ordezkariak uraren inguruko kezak eta proposamenak azaldu zizkieten. Tolosan txostena, Samaniego, Orixe, Laskorain, Hirukide Eskolapio, Hirukide Jesuitena eta Lanbide Eskolako ikasleek aurkeztu zuten. Iruran, Ikastolakoak joan ziren udaletxera. ASIER IMAZ

Zahartzaro duinaren aldeko plataformaren asanblada

Tolosa » Erresidentzia berriaren inguruan hitz egiteko Udalarekin ez dira gehiago elkartuko Plataformako kideak.

ASIER IMAZ

Zahartzaro duinaren aldeko plataformako kideak ez dira Tolosako Udalarekin gehiago bilduko. Hirugarren adinekoen erresidentzia berria «bukatzear» aurkitzen denez, «egin daitezkeen aldaketak oso txikiak direla» azaldu dute. Hori bai, bi gauza argi utzi nahi izan dituzte: «Hau ez dela gure proiektua eta aukera paregabea galdu dela».

«Pladurrezko kaiola»

Euskal Herri plazako gerontologikoa itxi behar zutela jakitean, herritar batzuk lan talde bat sortu zuten, «Gerontologikoa ez ixteko

helburuarekin». Erresidentzia itxi zutenean, «Eta orain zer?» galdera luzatu zuten. Orduan, eraikin berri bat egin behar zutela jakin zuten, Alhondiga plazan. Une horretan sortu zuten Zahartzaro duin baten aldeko plataforma, «zentro honek eskainiko duen zerbitzua ahalik eta kalitate onenekoa izateko ari gara lanean».

Horrela, erresidentzia berriaren proiektuaren diseinuan parte hartzeko aukera eskatu zuten, «maiz». Baina euren esanetan, «dena egin zegoenean ikusi genuen lehen aldiz». «Proiektu hau hobetu zezaketen ekarpenak egin genituen orduan, baina ez genuen Udalaren erantzunik jasotako».

Hala eta guztiz ere, azken urtean udal ordezkariak bildu dira, baina emaitzak antzuek izan direla onartu zuten: «Hasieratik zituen oinarritzko akatsak mantentzen ditu. Proiektu honek ez ditu bertan biziko diren aitona-amonak subjek-

tu nagusi hartzen. Erresidentzia berri hau *pladurrezko kaiola* berri bat bihurtu dute».

Etzi, asanblada informatiboa

Azken urteetako ibilbidea gainbegiratu ondoren, lanean jarraitzeko asmoa azaldu zuten Plataformako kideek: «Herriko zahar etxeetan eskainiko den zerbitzua ahalik eta kalitate onenekoa izan dadin».

Erresidentzia berriaren inguruan Plataformaren iritzia edo proposamenak jakin nahi dituztenek berriz, etzi edukiko dute horretarako aukera San Frantzisko-ko jubilatuen lokalean.

» ASANBLADA

Hilaren 8an, etzi

- **Gaia:** Gerontologiko berria.
- **Non:** Harizpe elkartearen lokalean.
- **Ordua:** 12:00etan.



Zahartzaro duinaren aldeko plataformako hainbat kideren prentsa agerraldia herenegun. A. IMAZ



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Auzi ekonomikoa ez dute Espainiako Auzitegi Nazionalen epaituko

'Egunkaria auzia' » Ez da Auzitegi Nazionalaren eskuduntza ustezko iruzur fiskala izango litzatekeelako, eta ez 'delitu terroristar'.

ERREDAKZIOA

Espainiako Auzitegi Nazionalak ez du *Egunkariako* auzi ekonomikoaren aurkako epaiketa egingo, Jose Maria Vazquez Honrubia Auzitegi Nazionalako zigor aretoko epaileak auzi Donostiako epaitegira igortzea erabaki baitu, gaur eguerdian auto batean jakinarazi duenez. Donostiako epaitegiak helduko dio, beraz, auzibideari.

Euskarazko kazetaren inguruko absoluzio epaiaren ondorioz, Vazquez Honrubiak ebatzi du auzian «delitu terroristaren» zantzurik ez dagoela, eta auzi ekonomi-

koan logokeen delitu bakarra ustezko iruzur fiskala litzatekeela «ohiko delitua». Hori epaitzea ez denez Auzitegi Nazionalaren eskuduntza -narkotrafiko eta «terrorismo» gaiterako sortu zuten auzitegi hori-, auzia Gipuzkoara pasatzeko agindua eman du *Egunkariaren* egoitza Gipuzkoan zegoen, Andoainen. Defentsak horixe eskatu izan du. Dignidad y Justicia herri akusazioak gaur bertan iragarri du helegitea sartuko duela.

Absoluzio epaia

Egunkariaren itxiera auziko epaia joan den apirilaren 12an aterazuen Auzitegi Nazionalak, eta absoluzioa eman zuten Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzipetuentzat, ETArekin loturarik ez zutela izan argudiatu-

ta. Defentsak bezala, Miguel Angel Carballo fiskalak absoluzioa eskatu zuten epaiketan. Ez ordea AVT eta Dignidad y Justicia herri akusazioek -12 eta 14 urte arteko kartzela zigor eskaerak egin zituzten-.

AVT eta Dignidad y Justicia apirilaren 29an esan zuten absoluzio epaiaren kontra ez zutela helegite jarriko Espainiako Auzitegi Gorenean; ondorioz, sententzia irmo eta behin betiko bihurtu zen.

Auzi ekonomikoa

Auzi ekonomikoko operazioa 2003ko urrian egin zuten Guardia Zibilak, *Egunkaria* itxi eta zortzi hilabetera. Bietan Juan del Olmo Auzitegi Nazionalako epaileak eman zuten agindua.

Itxiera kasuko sententziaren arabera, bost auzipetuek ez zuten deliturik egin, ez zuten ETArekin loturarik eduki, itxiera neurria Es-

painiako Konstituzioaren babesik gabea izan zen, hedabideak demokrazian oinarritzko tresna dira eta itxierarekin adierazpen askatasuna urratu zen, *Egunkariak* ez zuten «terrorismoa» goستن, akusazioak frogarik gabekoak, ahulak eta oinarririk gabeak izan ziren, eta atxilotuen inkomunikazio garaian ez zen kontrol judizialik egon -torturak eta tratatu txarrak jaso izana salatu zuten-.

Zortzi auzipetu daude auzi ekonomikoan, eta 13 eta 26 urte arteko espetxe zigorrak eskatu dituzte haientzat, baita 235 milioi euroko isuna ere. Tartean da Tolosan bizi den Begoña Zubelzu. Diru kontuak faltsutzea eta zerga iruzurra egin izana egotzi diete, eta alor ekonomikoan ETArekin harremana izatea. Kasu honetan Dignidad y Justicia baino ez dago herri akusazio bezala. Bere garaian Fis-

» ZIGOR ESKAERAK

- **Joan Mari Torrealдай.** 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Iñaki Uri.** 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Txema Auzmendi.** 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Joxe Mari Sors.** 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Ainhoa Albisu.** 26 urte eta 4 hilabeteko espetxealdia eta 32,8 milioi euroko isuna.
- **Mikel Sorozabal.** 21 urte eta 9 hilabeteko espetxealdia eta 27,2 milioi euroko isuna.
- **Begoña Zubelzu.** 17 urte eta 2 hilabeteko espetxealdia eta 21,6 milioi euroko isuna.
- **Mando Furundarena.** 13 urte eta 3 hilabeteko espetxealdia eta 21,2 milioi euroko isuna.

kaltzak zigor eskaerak egin zituen; ikusi egin behar orain zer jokabide hartuko duen.

Hilaren 15ean izango da herriko gazteek antolatutako Txapin Festa

Tolosa » Hirugarren edizio honetan hainbat aldaketa izango dira; tartean garai bateko baltsen jaitsiera egingo dute Oria ibaian.

ERREDAKZIOA

Hirugarren urtez jarraian aurten ere Txapin Festa ospatuko dute herriko gazteek. Maiatzaren 15ean izango da jai eguna.

Gazteek hastapenetan jarritako helburuak urtez urte betetzen ari direla gogoratu nahi izan dute, izan ere «gazteon ekimenez eremu desberdinetan ibiltzen garen gazteontzat elkargune bat sortu dugu: Txapin Festa», argitu dute antolatzaileek.

«Ekimen herriko, euskaldun, parekide eta parte-hartzaile bat egiteko gai garelako izan dugu, dozenaka gazte musu-truk egindako lanari esker. Hau guztia ez li-

tzateke posible izango antolaketan eta egunean bertan parte hartzen dugun gazte, musika talde eta abarren laguntzarik gabe», gaineratu dute.

Jai eguna lokal arteko iniziatibaz sortu bazen ere, Txapin Festa ez dela lokal festa bat ere nabarmendu nahi izan dute, «baizik eta tolosar gazte ororena. Horregatik gaztetxo, gazte eta gazte sentitzen diren guztiak parte hartzera bul-tzatzen ditugu».

Gazte guztiak kalera

Maiatzaren 15ean, hortaz, «Tolosako kaleak gazteok beteko ditugu, gure izaeraren erakusleho, gure arazo eta aldarriekin, denok bate-rak, jai giroan».

Aurten berrikuntza moduan, eta jaiari erakargarritasuna emate-arren, baltsen jaitsiera antolatu dute egitarauaren barruan.

«Garai batean San Joanetan egi-ten zen moduan koadrilek beren

baltsa eraiki eta Oria ibaian behera jaitsiko dira, Berazubitik Zerkau-siraino». Ferialekuko kanpoko patioan baltsak egin eta materiala pilatzeko aukera izango dela ere ar-gitu dute antolatzaileek.

Tiketak salgai jada

Jaia 10:00etan hasiko da urtero egiten den lokal arteko poteoa-rekin eta ondoren, Bonberenea txarangak eta Mulanbo perkusio taldeak alaituko dute kalea.

Baltsen jaitsiera 12:00ak inguru-an izango da eta baltsak poteo aurretik bertara eraman daitezke. Aurten ere bazkaria izango da, oraingoan Zerkausian, tiketak 12 euro balio dute eta Orbel, Raku, Meskal eta Denak tabernetan ero-si ahal dira jada.

Arratsaldean jolasak izango dira Plaza Berrian eta iluntzean kontzertuak izango dira herriko taber-netan, horietako bat Humus talde-arena izango delarik.



Mosqueiraren logotipo irabazlea

VILLABONA » Atzoko egunkarian Villabonako Katea Etxea identifikatzeko logotipo irabazlearen irudia kaleratu genuen, baina hori ez zen garaile suertatu zen lana, goian azaltzen dena baizik. Andoni Mosqueira gazteak egindakoa da eta hilaren 5an kaleratutakoarekin alderatuz gero, irabaz-lea txuri beltzkoa dela ikusi ahal izango duzue. HITZA

Hilberria

MIGUEL GUERSTA MAIZ
JAUNA
TTOTTOREN AITA
-Goianbego-

Azken ordua iritzi zaizu inorrek ez genduen nahi, zuk irakatsi zenigun horrek guztion barnean darrai,

zure etxea eta amona zainduko ditugu, lasai, Ernio mendiari begira jarraitu ezazu alai



Zure bilobak: Ander (Euskal Preso Politikoak), Naroa, Oihana, Maialen, Uztaritz, Irati, Garazi, Ane, Irtaxe eta Amair. eta gainerako ahaideek. Haren animaren alde otoi bat eskaltzen dizuete eta arren etor zaitez-te! GAUR OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Zuzurkilo SAN MILLAN parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



Orain bi urteko Erniopeko Ibilaldian mendizaleak Albizturko kontroletik pasatzen. E. EZEIZA

Bidegoianen hasi eta bukatuko da aurtengo Erniopeko Ibilaldia


Mendia » Erniozaleak elkarteak bi urtez behin antolatzen du eta igande honetan egingo den ibilaldia zazpigarrena da.

IMANOL GARCIA

Bi urtez behin izaten da Erniopeko Ibilaldia eta aurrean dagokio bere txanda. Erniozaleak kultur elkarteak antolatzen du eta abiapuntua eta helmuga Bidegoianen izango du aurrean. Igande honetan egingo da, hilaren 9an, eta atzo bitartean 235 lagunek eman dute dagoeneko izena. Elkartea osatzen duten zortzi herrietako bizilagunek parte hartzen dute antolaketa: Bidegoian, Errezil, Aia, Asteasu, Larraul, Alkiza, Hernialde eta Albiztur.

Joxe Angel Zinkunegi bidegoiandarra da antolatzailerako bat eta berak azaltzen duenez, ibilaldiaren helburua «lehengoko gurdibide ezagutzeko eta mendiaz gozatzeko» antolatzen dute. Bi ibilbide egiteko aukera dago. Bat luzea, 48,6 kilometrotakoa, eta bestea motza, 25 kilometrotakoa. Biak herri berdinean hasi eta bukatzen dira, Bidegoianen.

Ibilbide luzea Ernio mendia inguratzen duen zortzi herri horietatik igarotzen da, ibilaldi zirkularra eginez. Ibilbide motzean ez dira herri guztiak zeharkatzen. Bidegoianetik ateratzen da, Errezilera joan, handik Zelatunera eta Alkizara jaisten da. Gero hortik Her-



Margo berdez ibilbide luzea zehaztuta dago eta margo gorriz ibilbide motza. HITZA

» DATUAK

Ibilbide luzea

- **Iraupena.** 11 ordu.
- **Luzera.** 48,6 kilometro.
- **Igotako desnibela.** 2.400 metro.
- **Irteera.** 06:00etan.
- **Gutxieneko denbora.** 7 ordu.
- **Gehienezko denbora.** 13 ordu.

Ibilbide motza

- **Iraupena.** 5 ordu eta erdi.
- **Luzera.** 25 kilometro.
- **Igotako desnibela.** 2.000 metro.
- **Irteera.** 08:00etan.
- **Gutxieneko denbora.** 5 ordu.
- **Gehienezko denbora.** 9 ordu.

nialdera eta Albizturk igaro ondoren, berriro Bidegoianera itzulizena.

«Ez da lasterketa»

Izena emateko aukera zabalik dago interneten www.erniozaleak.org helbidean. Bertan eskatzen diren datuak sartu behar dira eta gero, igandea, txartela jasotzerakoan 10 euro ordaindu behar dira.



Berdez ibilbide luzea eta gorritz ibilbide motza. HITZA

Igandean bertan ere izena emateko aukera izango da. Bidegoiangor frontoian egongo dira antolakuntzakoak eta ibilaldi luzea hasi baino ordu bate lehenago, hau da, 05:00etatik, izena eman ahalgo da. Ibilbide motzerako ere irteera baino ordu bate lehenago, hau da, 07:00etatik, izena eman ahalgo da. Zinkunegik azaltzen duenez, «350 lagun inguruk parte hartzen du, eguraldiaren arabera». Irteera izena eman den ordena berdinean izango da.

Herri bakoitzean txartelari zigilua jarri beharko diote parte-hartzaileei. «Ez da lasterketa bat, ibilaldia da», dio Zinkunegik. Horregatik gutxieneko denbora baino lehen iristen dena, zigilua jartzeko zain egon beharko du. Bestalde, ez da inolako sailkapenik emango. Herri bakoitzean, eta Zelatunen ere, jateko eta edateko izango da. Guztira 60 lagun inguru ariko dira antolaketa lanetan.

Zazpigarren aldiz izango da aurrean antolatzen dutela ibilaldia. Antolatzen den urte bakoitzean herri ezberdin bat izaten da abiapuntua eta helmuga hartzen dituen.

Erniozaleak elkarteak 1997ko hasieran sortu zen Ernio inguratzen duten zortzi herrietako biztanleen ekimenez. «Bitan banatzen gaituen hesia izan arren, Ernio guretzat zaindu eta indartu behar dugun gune bat batzen duen benetako erreferentzia kulturala da», azaltzen dute elkartetik.

Ibilteko ohitura

Ernioko gurutze handiaren 50. urteurrenaren inguruko ospakizunen antolaketa izan zen egin zuten lehen ekintza.

Ospakizun horiek bi mailatan planteatu zituzten: «Batek, gurutzea eraiki zutenei omenaldi bat antolatu genien, eta bestetik, inguru honetako zenbait mendizalaren desio bat errealitate bihurtu genuen, hau da, uzta sendagarriak dituen lehen gurutzaren ondoan zegoen borda berreraikitzea».

Aspaldidanik erabili diren ibilbideei garrantzia berezi ematen diote elkartetik. «Euskal Herriaren bihotz-bihotzean egoteaz gain, historiaurreaz geroztik, milioika gizakiak pasa-lekua izan da Ernio», diote elkartekoek. Nafarroa eta kostaldea, nahiz probintzia barneko herrien arteko hainbat bide-loturak gurutzatu izan diren tokia izan baita.

«Ibilaldia gure arbasoek utzitako arrastoari jarraitu dio, garai bateko basa-bide zaharrak, ohiko bideak, nahiz Erdi Aroko gaitzak berreskuratuz», azaltzen dute. «Eta hori dena, helburu bakar batekin: geure nortasunaren ezagutzarako bati eustea, euskaldunok betidanik izan dugun ibiltzeko ohiturari alegia». Ernio ingurutik hiru ibilbide luze edo GR igarotzen dira: G.R. 21, Ignazioaren ibilaldia; G.R. 34, Donostia eta Arantzazuren arteko transhumantzia-bidea; eta G.R. 35, Aralar eta kostaldea arteko transhumantzia-bidea.

Ostatuaren kudeaketa kontratua lehiaketara atera du Udalak

Leaburu » Interesatuak eskuragarri dituzte pleguak; hilaren 15ean amaitzen da eskaerak egiteko epea.

ERREDAKZIOA

Leaburuko Ostata lehiaketara atera du Udalak. Udaltzako, martxoaren 31n egindako eozhiko bilkuran onartu zuen ostatuko ustiaketa kontratuaren lizitazio publikoari hasiera ematea, eta apirilaren 15ean egin zuten publiko eskaintza. Honela, interesatuak, maiatzaren 15a bitartean aurkeztu dezakete eskaera, Leaburuko Udaltzako Idazkaritza Orokorrean. Bestalde, eskuragarri datoki berean, kontratua arautuko duten administrazio baldintza zehatzen agiria.

2003an eraiki eta esleitu zen Leaburuko Ostata. Hala, joan den urteko abenduaren erdialdera arte zabalik egon zen, baina azken hila beteetan itxita egon da. Orain, Udalak, lehenbailehen berriro ere martxan jartzeko asmoz, lehiaketara atera du.

Jatetxe eta ostatu zerbitzuak eskaintzen dira plazaren sarreran kokatuta dagoen eraikinean. Ondorengo instalazioez ekipatua dago eraikina: biltegi eta abarretarako erabiltzen den sotoa; jatetxea dagoen behe oina; taberna lehen oinagan eta lau gela, bigarren pisuan.

Udal ordezkarien hitzetan, «bere garaian, zerbitzu hau mar-



Sotoa, taberna, jangela eta lau gelek osatzen dute herriko plazan kokatuta dagoen Ostata. E. EZEIZA

txan jartzeko erabakia hartu zen Leaburuko Herriguneko biztanleek mota honetako aisialdirako zeukan beharrei erantzuna emateko zerbitzurik ez zegoelako». Honez gain, herrigunea bera sendotzeko ere egokitzat jotzen dute. Egun, herriko jatetxe bakarra da hau. Gainera, eskualdeko hainbat herri txikitik gertatzen den bezala, ez dago bestelako saltoki nahiz tabernarik.

Kontratuaren ezaugarriak

Orain artean, 15 urteko iraupena izaten zuen kontratuak, baina epe hau murriztea erabaki dute. Honenbestez, kontratua hamar urtez

egongo da indarrean, eta administrazioak hala nahi badu, emakidaren epea luza dezake. Baina hori bai, gehienez ere, bost urtez.

Ostata hartzen dutenek gutxienez 2.500 euro ordaindu beharko dituzte hilean, eta BEZ-a bestetik. Honez gain, ostatuko leku guztietan emandako edozein kontsumo moten kostua bere gain hartu beharko dute, hau da, elektrizitatea, gasa...

Prozedura

Eskatzaileek egindako proposamenak balioespenerako irizpideen arabera banatuko dituzte. Izan ere, kontratazio-mahaiak, kontra-

tuaren xedearekin lotura duten eta beharrezkotzat jotzen dituen zenbait ezaugarriekin, taula bat osatu du. Eta hauek betetzen diren neurriaren arabera, sailkatuko dira eskatzaileak. Balorazio irizpide horien artean daude: prezioa, esleipendunaren titularen zuzeneko implikazioa, inbertsio proposamena, kalitatea eta merkatal proposamena. Hauen arabera, gehienez ehun puntu lortu ahal izango dituzte eskatzaileak.

Lizitazio publiko honetan parte hartu nahi dutenek, ostalaritza zuzendaritza edota kudeaketa eremuan zortzi urteko esperientzia egiaztatu beharko dute.

Laburrak

Berdintasunari buruzko diagnostikoa, hizketagai

ALEGIA » Alegiako emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzko diagnosiaren emaitzak aurkeztuko dituzte. Gaur arratsaldean, 19:00etan izango da ekitaldia, Kultur Etxean. Miren Zeberio izango da hizlaria, Equala Kontsultoria-ko proiektu Teknikaria. Udalak aurkezpenaren parte hartzera gonbidatzen ditu herritar guztiak.

Anjel Arrospide Orduñan lehiatuko da larunbatean

LEABURU » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako, Eusko Label Sari Nagusiko, jardunaldi bat jokatuko da etzi Orduñan. 12:00etan hasiko da lehia, herriko plazan. A taldean, Anjel Arrospide eta Jose M^a Olasagasti izango dira aurrez aurre. Igeldoarrak ezinbestean irabazi beharra dauka, Txapelketan aurrera egin nahi badu. 16 mozketara egin beharko dituzte, bost modalitate ezberdinetan.

Iruñera joateko autobusa antolatu du Kax-Kaxek

LEITZA » Nafarroan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatzeko hilaren 15ean, Iruñean egingo den manifestaziora joateko autobusa antolatu du Kax-Kax euskara taldeak. Kontseiluak sustatuta Nafarroan euskarak bizi duen egoeraren aurrean erantzuna aktibatzekeo dinamika abiatu da, eta honen baitan egingo da protesta. Maimur, Astitz, Torrea eta Gaztañagan eman daiteke autobuserako izena, hilaren 12ra bitartean. Autobusa arratsaldeko bostetan irtengo da Leitzako kale nagusitik.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.

Gozatu berria



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERMANETARAKO

943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean

Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean, Eroski Bidaiak-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



AUKERA EZAZULU, BIZI EUSKARAZ

berria

FUM Electric Trio taldea entzungai, bihar gauean, Torrean

Leitza » Jazz fusiona egiten duen musika taldeak kontzertua eskainiko du herrikoan; 00:00etan hasiko da emanaldia.

ERREDAKZIOA

Jazz fusiona zer den ez dakitenez, bihar hori ezagutzeko aukera izango dute Leitza, FUM Electric Triok kontzertua eskainiko baitu Torrean. Emanaldia 00:00etan hasiko da.

Duela gutxi sortutako taldea da hau, eta musikaren munduan, urte asko daramatzaten hiru profesionalak osatzen dute. Jon Uribetxeberria (bateria), Txuma Flamarique (gitarra) eta Oscar Muñozek (baxua) hain zuzen ere. Beraiek sortutako abestiak nahiz beste taldeen bertsiok jotzen dituzte. Esa-



Bihar Torrean entzungai izango den kontzertuaren kartela. HITZA

terako, Mike Stern, Dennis Chambers, Frank Gambale, Alain Caron, Allonzo Johnson eta Al Di Meolarenak.

Taldekiek behin baino gehiagotan jo izan zuten elkarrekin, Feel

eta Airam bezalako taldeetan, baina inoiz ez talde berean. Beraien kontzertuetan oso garrantzitsua da bat-batekotasuna. Izan ere, taldekide bakoitza ezberdina da, eta berezia.

Javier Urkolaren omenezko IX. Duatloi Herrikoa larunbatean izango da

Tolosa » 17:00etan hasiko da eta hasiera eta bukaera Plaza Berrian izango ditu. Kutsu herrikoa duen proba izatea nahi dute.

ENERITZ MAIZ

Larunbat arratsaldean, hilak 8, Javier Urkolaren Omenezko IX. Herri Duatloia ospatuko da Tolosan. Lehen aldiz, 1997. urtean hasi ziren antolatzen proba hau eta 2002. urtea bitarte etenik gabe ospatu zen. Sei urtetako etenaren ostean, iaz, Mahala-Tolosaldeko Triatloi Taldeak proba berriro errekupe-ratzeko aukera ikusi zuen eta baita antolatu ere. Iaz, parte hartzaileen aldetik izan zuen erantzuna ikusita, aurten ere ahalegin berezia egin dute guztia ahalik eta txukunuen antolatzen.

Korrika eta bizikletan

Izen ematea bukatu ostean, 17:00etan emango zaio hasiera aurtengo Duatloi Herrikoari. Aurtengo, boxesak eta irteera Plaza Berrian kokatuko dira. Ibilbideari dagokionez, partaideek, hasteko 2 kilometro korrika egin beharko di-



lazko duatloia amaitu ostean, antolatzaileak eta irabazleak. E. EZBIZA

tuzte herriko kaleetan barrena. Jarraian, oinetakoak aldatu, bizikletak hartu eta 15 kilometro burutu beharko dituzte Tolosa eta Anoeta artean prestatu duten ibilbidean itzulika ibiliz. Proba amaitzeko berri ere, korrika saioa izango dute. Kasu honetan, alde zaharreko kaleetatik barrena, 2 kilometro egin

beharko dituzte. Guztira beraz, 19 kilometroko ibilbidea prestatu dute.

Eskualdekoak gonbidatuta

Tolosa eta eskualdeko jende guztia gonbidatzen dute bertan IX. Duatloi Herrikoian parte hartzera. Guztia gainera kutsu herri-

koa duen proba izatea nahi dute antolatzaileek.

Horregatik, parte hartzen dutenen artean, sari moduan afariak eta antzekoak zozketatuko direla jakinarazi dute antolatzaileek. Hiru kategoriatan parte hartzeko aukera eskaintzen dute: bakarka, bikoteka edota koadrilan izan dai-

» JAVIER URKOLA IX. DUATLOI HERRIKOIA

Larunbata, hilak 8

- **Izena ematea.** Egunean bertan, 15:30etik 16:45ak arte.
- **Non.** Plaza Berrian.
- **5 euro.** Parte hartzeagatik ordaindu beharrekoa.
- **Nola egin.** Bikoteka, Koadrilak (gutxienez 3 lagun) edo bakarka.
- **Non.** 17:00etan hasiko da plaza Berrian.

Ibilbidea

- **Korrika.** 2 kilometro.
- **Bizikletan.** 15 kilometro.
- **Korrika.** 2 kilometro.

teke. Koadrilan atera nahi izanez gero, gutxienez hiru laguneko taldea osatu beharko da. Beraz, parte hartzeko modua zabalda da.

Izena emateko aukera, egunean bertan bakarrik egongo da. Izena, plaza Berrian 15:30etik 16:45ak arte eman ahalik da eta parte hartzaile bakoitzak 5 euro ordaindu beharko du. Inork informazio gehiago nahi izanez gero, antolatzaileekin harremanetan jarri daitezke tolosaldekott@gmail.com helbidera idatziz.

Antolatzaileek Tolosaldeko Triatloia Taldea da eta Tolosako Udalaren laguntza izateaz gain, Insaluz, Shanti Kirolak, Mahala Baserriko Produktuak, Zut!, Graficas Ibarra eta Beristain Txirrin-duak izan dituzte laguntzaile.

'Paskualtxo'-ri omenaldia egingo dio herri kirol eta kultura munduak

Zizurkil » Ekainaren 6an herri kirol jaialdia Zizurkilgo Aundinibar baserriko belardian izango da. Gero bazkaria egingo dute.

E. MAIZ

Jose Mari Zulaika, *Paskualtxo*, 1938. urtean jaio zen izen bereko Zarauzko baserrian, baina lotura estua du Asteasurkin. 50 urtetik gora eman ditu herri kirolen munduan lanean eta hori dela eta, ekainaren 6an, herri kirol munduan dabilzanek, eta baita trikitiaren ingurukoek ere, berak merezi bezain besteko omenaldia egingo diote.

Lehenengo kirolari bezala ezagutua izan zen: segan, harri jasotzen, idi apustuatan... Ondoren, hainbat kirolari gazte eta ez hain gazteren maisu eta laguntzaile paregabea izan da. Urte guzti haue-

tan eman duen laguntza «muxe truk eta bere borondatez» izan da. Herri Kirolerako zaletasuna txikitatik izan arren, benetako afizioa eta jakinduria, Asteasurko Mutteia baserrian garatu zituen. 18 urterekin etorri eta 20 urte pasatu zituen bertan Eleuterio Tapia maisuarekin bizitzen. Asteasun, Eleuterio Tapia eta bere familiarekin bizi izanak, herri kirol munduko hainbat eta hainbat bizipen eta pasadizoren jabe egin du. Gainera, Eleuterio Tapia segalariaren maisu izateaz gain, trikitilaria ere bazen. Gerotik *Paskualtxok*, herri kirol mundua, trikiti mundua eta oro har euskal kultura, oso maitatuak izan ditu.

Merezitako omenaldia

Hainbat urte pasa ondoren, bere ikasle izan diren hainbatek eta bestelako laguntza ugari jaso duten lagunak bildu eta ondo merezita duen omenaldia eskaintzea eraba-



Besteak beste, Saralegi eta Perurena jaialdian izango dira. K. ALDUNTZIN

ki dute. Antolatzaileek, urte guzti horietan egindako lanaren errekonozimendua egin nahi diote. *Paskualtxok* berak, eta era berean, herri kirol munduak ere merezi duelako. Ekainaren 6ean ospatuko den omenaldiarekin, belaunaldi ezberdinen arteko lotura egingo dute. Eta helburuen artean, egungo herri kirolzale gazteei, Jose Mari Zulaikaren lana ezagutzeko aukera ematea dago.

Omenaldi hau antolatzeko garaian: «herri kirolaz gain, trikitia eta bertsoak ere kontutan hartu ditugu. Hiru esparri hauek betidiana elkar lotuak edo elkarren ondoan ibili izan dira, eta horregatik

egokia iruditu zaigu egun horretan, jaialdi berdinean elkarrekin uztarturik antolatzeara» adierazi dute antolatzaileek.

Izen handiko jende asko bilduko da Zizurkilgo Aundinibar baserriko belardian. Goizez, 11:30ean hasita pare bat orduko iraupena izango duen jaialdia izango da. Kirol ezberdinak ere motzean, bizi eta modu dinamikoan egingo dituzte. 14:00etan bazkaria izango da Zizurkil Goiko pilotalekuan eta bertsoariak eta trikitilariak ere izango dira. Azken hauek, omenaldirako prestatuturiko ekitaldia eskainiko dute. Nola ez, *Paskualtxori* oparia ere emango diote.

» 'PASKUALTXO'-RI OMENALDIA

Herri Kirol Jaialdia, ekainaren 6an 11:30ean

- **Harrijasotzaileak.** Perurena aita-
semeak, Saralegi, Goenatxo, Zelai, Izeta II, Ostolaza aita-
semeak, Landarbidetxe, Gibitegi eta Aimar Irigoien.
- **Aizkolariak.** Nazabal, Larretxea, Olasagasti, Arrospe, Lopez, Otaegi, Arria II, Arria V, Oihan Larretxea, Olaneta eta Mudertza II.
- **Segalariak.** Lizaso, Mendizabal, Urki, Erasan, Gabirondo eta Garin.
- **Korrikalariak.** Garin anaiak, Eneko Garin, Aimar Agirresarobe, Bixente Artola eta Iruntxinberri.
- **Trontzalariak.** Bi bikote: Aitor Esnaola eta Josune Gorostidi; eta Igor Esnaola eta.

Bertso eta trikitiarekin bazkaria, 14:00etan

- **Non.** Zizurkil Goiko pilotalekuan.
- **Bertsolariak.** Jesus Mari Irazu eta Jokin Sorozabal.
- **Trikitilariak.** Epelde eta Iturbide, Astiazaran aita-alabak eta Tapia eta Leturia.
- **Txartelak salgai.** Tolosako Kantabrikon, Zizurkilgo Iriarten, Asteasurko Iturri-Ondon, Aiako Joanen eta Azpeitiko Mendizabalen.
- **Maiatzak 30.** Txartelak erosteko azken eguna.
- **Prezioa.** Helduek 35 euro eta 14 urtetik beherakoek, 8 euro.



11°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	13°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Aurkezpena

■ **Zizurkil.** *Pello Mari Otañoren arnasa* liburuaran aurkezpena Atxulondo Kultur Etxean 20:00etan.

Elkarretaratzea

■ **Tolosa.** *Pello Lizardira!* elkarretaratzea plaza Zaharrean 19:30ean, Pello Odriozola presoaren askatasuna aldarrikatzeko.

Aisialdia

■ **Ibarra.** Garagardo Azokaren inaugurazioa 18:00etan. Igandera arte egongo da zabalik.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3.943 67 09 15.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 7. 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Urko Oreja Mitxelena (Tolosa). Gaur urtebete. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.



Zorionak Eijer!

Gaur 5 urte. Muxu potolo-potoloak denon partetik!

Igandean jakingo duzue zeintzuk diren zortzi argazki finalistak. Baina bien bitartean Aste Santuko oporraldietan eskualdeetako jendeak ateratako argazkiekin gozatzeko aukera duzue.

Paisaiak nagusi



TOLOSA ●

«New Yorkeko Central Park-en, Strawberry Fields izeneko pasealekuan atera genuen argazki hau. John Lennonen omezez egina dago». LEIRE ZABALA




BERASTEGI ●

«Argazki hau Isaba aldean geratzen da, Iruberriko arroi-lan». ANNE AGIRREZABALA



TOLOSA ●

«Aste Santuan Kroazia aldean ibili ginen eta hona hemen Zadarreko kostaldean ateratako argazkia». NEREA BASTARRICA



TOLOSA ●

«Cadizeko Conil de la Fronteran ateratako argazkia da. Iluntze eder bateko irudia». IZASKUN MATEO



LIZARTZA ●

«Argazki hau Turkian aterata dago, naturak honelako ikuspegi bitxiak sortu ditu Kapadozian. Duela milioika urte sumendiek jaurtitako errautsekin, naturak denboraren eraginez formakuntza bitxi hauek sortu ditu». MALENTXO



TOLOSA ●

«Elziegitikan Labastidarako bidean aurkitutako harri polita».